

inkesta | sagardotegira joatea gustuko al duzu?**Inazio Amillibia**
«Sagardotegian ardo botila eskatzen dut joaten naizenean»

Ez naiz sekula izan sagardozalea, eta, beraz, ohitura handirik ez dut sagardotegira joateko. Joan, joan izan naiz, eta joaten naiz tartean-tartean, baina edateko botila ardo hartu izan dut beti. Gu ardo edaten ohitu gara beti-betidanik, eta ardo gusturago edaten dut sagardoa baino; beraz, gustukoaren alde egiten dut nik. Hala ere, koadri-lan joan eta han aurkitzen duzun giroa beti gustatu izan zait asko; horregatik joaten naiz. Jatekoa ere gustukoa dut. Beno... egia esan, niretzat janari txarrik ez da egin oraindik! Horregatik, batik bat giroak bultzatzen nau sagardotegietara. Izan ere, sagardotegietan oso giro berezia egoten da beti, ederra, beste tokietan egoten ez den bezalako.

Migel Mari Zabala
«Nahiago dut sagardoa botilatik edan»

Lehen askoz gehiago joaten ginen sagardotegira gu; orain dezenteko gutxiago izaten dira haietara egindako bisitak. Ematen dituzten janaria eta edaria gustatzen zaizkit, baina batez ere giroagatik joaten naiz, egia esan. Sagardoa ona egoten da, noski, baina dena esatera, nik nahiago izaten du sagardoa botilatik edan. Hobeia egoten da, eta neñuri gehiago gustatzen zait. Nolanahi ere, sagardotegietan giroa da berezia, beste tokietan ez bezalako delako. Gainera, sagardotegiko menuko janaria ere asko gustatzen zait. Horregatik guztiagatik, oraindik ere joaten gara, lehen baino gutxiago bada ere. Izan ere, sagardotegira urteroko bisita egin beharra dago, ezinbestean.

Raquel Garcia
«Ez zait sagardoa gustatzen, eta, beraz, ez dut ohiturarik»

Egia esan, nik ez dut sagardotegira joateko ohitura handirik; nahiko gutxi joaten gara. Nire mutil-laguna pilotaria da, eta hark partidaren bat jokatu ondoren sagardotegirako plana ateratzen bada, edo gonbidatzen badute edo, biok joaten gara, baina, bestela, lagunekin-eta geure borondatez ez dugu sagardotegira joateko ohiturarik. Izan ere, niri sagardoa ez zait gustatzen, eta horregatik, ez dit inbidia handirik ematen hara joateak. Bestelakoan, janari ona egoten da, eta giroa apartekoa da, baina sagardoa gustuko ez izanda, erabat normala da hara joateak illusio handirik ez egitea. Beraz, ez gara sarri joaten.

Ixiar Goenaga
«Haurrekin zaila da sagardotegirako tartea egitea»

Lehen bai, joaten ginen, baina umeak dauzkagunetik ez dugu sagardotegirako ohiturarik, egia esan. Sagardotegia asko gustatzen zait berez, eta lehen bai, asko joaten ginen, baina orain, haurrekin eta, ezin da lehen bezala ibili. Oso giro ona egoten da sagardotegietan, sagardoa edatea ere asko gustatzen zait, janaria (txuleta, tortilla) ere bai... Egia esan, dena dut oso gustuko! Baina, hala ere, orain, harantz joan nahi bada, haurrak *engantxatu* egin behar dira, nonbait utzi, eta hori ez da hain erraza izaten! Beraz, orain ezin gara sagardotegira asko joan, horretarako gogo galanta izan arren.

oihana elduaien (hermanin eta azpeitian egina)



Inazio Amillibia.



Migel Mari Zabala.



Raquel Garcia.



Ixiar Goenaga.

hitzez hitz**«Ardo mahastietan hasten da; lehengaia da funtsezkoena»**

Kataluniarra da Pere Gilli, 38 urte ditu, eta aholkularia da mahastizaintzan, enologia eta dastatze prozesuan. Zein egoeratan dago ardogintza egun? Esan beharra dago ardoaren sektorea ez dagoela erregulatua. Bestalde, *esnobismo* asko dago Espainian 50eko hamarkadan finkatu zituzten gaur egunera arte iraun duten komertzializazioaren eredu eta ardoaren kontzeptioa. Gero izan dira saio ausart batzuk, eredu horrekin ados ez zeuden batzuen aldetik.

Eta zein da eredu hori?

Eredu horretan komertzializazioa da motorra; helburu horrekin antolatzen da sektorea. Nire ustez, ardo mahastian hasten da, eta hainbat kate maila daude, baina betiere lehengaia da garrantzitsua. Komertzializazioa ere bada, jakina, baina horrekin batera baita beste maila batzuk ere, dibulgazioa esaterako. Helburuak ez du izan behar estandarizazioa, baizik pertsonalizazioa.

Errioxako ardoez ari al zara?

Bai. Ardoaren inguruan deskulturalizazioa gertatu da. Dena onartu da, *izugarria* da. *Aurreiritzi asko ditu jendeak.*

Zer nolako aurreiritziak?

Etiketari lotutakoa. Esate baterako, jende askok ardo Errioxako bada ontzat joko du eta Nafarroakoa bada ez zait gustatuko, Nafarroakoa izateagatik bakarrik. Nik batzuetan dastatze itsuak antolatzen ditut. Botilen etiketa estali egiten dut, eta jendea probatzeko ematen diot. Izugarriko sorpresak hartzen dituzte.

Ardo on batek zer behar du?

Batetik, gustu pertsonala dago. Eta gero alde tekniko dago, objektiboa. Alde sensoriala, oreka, itsura, usaina... Denari erreparatu behar zaio, baita kalitateari eta prezioaren arteko aldeari ere. Horrez gain, elaborazioari erreparatu behar du.

«Goleeriko hitza» (2006-01-15)

katixa agirre**Belaunaldi exiliatua**

Gasteiz hazten ari da, bere tentakuluak zabaltzen. Hori irakurri dut behintzat egunkari batean. Zortzi auzotan hamar mila pertsona baino gehiago pila-tzen dira. Hori diote datu objektiboek, eta sinistu beharko. Hori diote datu objektiboek, baina nire sentazio subjektiboa oso bestelakoa da. Nire aburuz Gasteizek populazioa galtzen du, edo galdu izan du azken urtetan, atzera bueltarik gabe.

Eta hori esaten dut gabon garaletan antzinako lagun eta ezagun askorekin egin dudalako topo. Gabonetan ikusi ditut, bisitan etorri direlako, beren bizilekua Gasteiztik urrun dagoelako. Batzuek ikasteko *asmaz* egin zuten alde eta bertan geratu ziren. Beste batzuk, hain ikasketak bukatuta, abentura edo lanpostu bila joan ziren. Gauza da Gasteiza gabonetan baino ez direla etortzen. Ez dakit inoiz gurera itzullo diren. Askok diote Gasteiz faltan botatzen dutela -hiri handietan bizi direnek bere lasaitasuna bota-

blog teka

«Nire aburuz, Gasteizek populazioa galdu du, atzera bueltarik gabe»

tzen dute faltan, lur lehorretan bizi direnak. Gasteizko xirimiria - baina, nago, gabonetako nostalgia eta muturreko sentiberatasun tipikoaren erruz diotela, erraza baita antzematen ondo baino hobeto dabilzela Madrilan, Parisen, Bartzelonan, Reunion Irian. Lanak, maitasunak, ala bien konbinazio arrisku-tsua erabat bahituta.

Nire belaunaldi harrapatu duen birus partikular bat izango da. Ziurrenik nire aurretik edota nire atzetik jaio zirenak birus horretaz libre daude. Gasteiz biziko dira alai eta gustura, lanpostu on batekin: hainbeste hazten diren auzo berri horietako batean babes ofizialeko pisu bat-edo tokatuko zitzairen edota hain soldata ona dute gure hiriburuko garesti honetan etxe bat erostea posible suertatu zaie. Bai, ziur mundu guztiari ez zaie nire belaunaldiari bezala gertatu. Bestela ezin dira ulertu Gasteizko hazkunde erakusten duten datu horiek, bestela datu objektiboekin engainatu nahi gaituztela pentsatu beharko nuke.

<http://katixa.blogspot.com/2006/01/belaunaldi-exiliatua.html>

**bihar****bidaiak**
Atlantikoko zeharkaldia

Lanzaroteetik abiatu eta Martinkarminoko asharakaldia egin dute Oriol Claverak eta lagun talde batek, belauntzan. 4.300 kilometroko bidaiak zirrargarria.